

## **ERANSKINA**

### **AURREKONTUETAN PARTE HARTZEKO PROZEDURA: HERRITARREN PARTE-HARTZEA, UDAL-AURREKONTUETAN GASTU PUBLIKOKO KONPROMISOAK IDENTIFIKATZEKO**

#### **INFORMAZIO OROKORRA**

Toki-erakundeek ekonomia- eta aurrekontu-ekitaldi bakoitzean gauzatu behar duten ekonomia-jarduera programa batek gidatzen du, eta programa hori osatzen duten erabakiei adierazpide formala ematen zaie agiri bidez, finantza- eta kontabilitate-kopurutan azalduta. Adierazpide horrek osatzen ditu, bada, Aurrekontu Orokorrak.

Galdakaoko partaidetza-aurrekontua prozesu irekia da, eta, horren bidez, Galdakaoko eta Usansoloko herritarrek proposamenak egin ditzakete udal-aurrekontuaren zati bat zertan erabiltzeari buruz.

Oro har, partaidetza-aurrekontuak partaidetzako, zuzeneko eta hausnarketako demokrasiako tresnak dira, eta, horren bidez, herritarrek udal-politikak diseinatzen, erabakitzen, gauzatzen eta haien jarraipena egiten parte hartzeko eskubidea dute.

Honako hauek dira prozesu honetan lortu nahi diren azken helburuak:

- Galdakaoko eta Usansoloko herritarrek zuzenean parte hartzea, haiei protagonismo aktiboa ematea eta, era horretan, zuzeneko partaidetzako demokrazian sakontzea.
- Herritarren beharrei eta eskariei erantzutea, irtenbide egingarriak eta adostuak abian jarrita.
- Udal-kudeaketan gardentasun eta eraginkortasun handiagoa lortzea.
- Gogoeta aktiboa eta elkartasuna bultzatzea, eta administrazioaren eta herritarren arteko komunikazioa eta elkarriketa sustatzea.
- Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna desagerrarazten laguntzea, prozesuan genero-ikuspegia txertatuta.
- Galdakaoko auzoek hitza izan dezaten eta beren beharrak adieraz ditzaten erraztea. Horrela, herri-sentimendua sustatu nahi da.
- 16 urtetik beherako pertsonen herriaren ikuspegia txertatzea, haur eta nerabeekin lan egiten duten elkarteetan, ikastetxeetan, guraso-elkarteetan, udal-

zerbitzuen eta haien presentzia garrantzitsua den beste espazio batzuen bitartekaritzaren bidez.

- Hausnarketa-gune inklusiboak eraikitzea gure herriaren garapenerako proiektuak txertatzeko orduan.

Galdakako Udalak udal-aurrekontuko 1.000.000 euro gordeko ditu partaidetza-aurrekontu gisa, udalaren aurrekontu-proiektua egin aurretik irekitako prozesu honetan jasotzen diren proposamenetarako. Partaidetza-prozesu honek izaera erabakitzailea du, toki-araubidearen oinarritzko araudiak osoko bilkurari emandako ahalmenei kalterik egin gabe.

Prozesuan, auzotarrez eta elkarteetako ordezkari osatutako talde eragile batek esku hartuko du, faseak dinamizatzeko. Horretarako, talde eragileak parte-hartze ekitaldien dinamika zehaztuko du, horietan aktiboki parte hartuko du eta herritarren artean sustatuko ditu. Halaber, prozesua abian dagoenean, eguneroko programazioa eta jarraipena egiten lagunduko du, eta prozesuak ongi funtzionatzeko egiten den beste edozer ekintzatan parte hartuko du.

Dokumentu honetako atal guztien helburua da 2021. urteko aurrekontuak egiteko prozesua zehaztea.

### **Eztabaidatu eta bozkatuko diren proposamenen izaera**

Kontuan hartuta COVID-19aren pandemiak eragin dituen ezohiko egoerak, ondorio larriak eta iraupena, Udalak iazko partaidetza-prozesuan gauzatu gabe geratu ziren eta teknikoki bideragarriak diren proposamenak bildu ditu, pandemiaren kalteak arintzeko eta/edo prebenitzeko egokitzat jotzen baitira. Hala, partaidetza-prozesuaren eztabaidak eta bozketak hainbat neurri ezartzea izango du xede, bai eta parte-hartzaileek pandemiaren ondorioei aurre egiteko eta Galdakao krisi honek eragin dituen beharretara egokitzeko proposatzen dituzten proposamen-aldaerak edo antzeko proposamenak ere.

### **Parte-hartzaileak**

Galdakaon erroldatuta dagoen eta 16 urte baino gehiago dituen edonork aurkeztu ahalko du proposamena, eta behin bakarrik eman ahalko du botoa, gehienez, onartutako bost proposamen aukeratuta.

Pertsona batek proposamen bat baino gehiago aurkezten badu, lehenengo aurkeztu duena hartuko da kontuan. Hori egin ezin bada, lehenengo aurkeztu zirenen artean, ausaz aukeratuko da bat.

Pertsona batek behin baino gehiagotan bozkatu badu, lehenengo botoa hartuko da kontuan.

Baldintzak betetzen ez dituzten pertsonak egin dituzten proposamenek eta eman dituzten botoek ez dute balioko. Horretarako, beharrezkoak diren egiaztapenak egingo dira udal-errolan.

### **Aztertzeko eta, ondoren, bozkatzeko onartzen diren gastu-proposamen berrien betebeharrak**

1. Proposamenak Udalaren eskumenekoa izan behar du.
2. Proposamenak teknikoki eta ekonomikoki bideragarria izan behar du.
3. Proposamenak ezingo du 200.000 euroko aurrekontua gainditu.
4. Proposamenak zehatza eta kuantifikagarria izan behar du (ez dira proposamen orokorregiak onartuko).
5. Udalaren interes publikokoa izan behar du, eta, beraz, ez du interes partikularrik edo pribaturik ase behar.
6. Legezkoa izan behar du, eta ez du eduki difamatzailerik edo diskriminatzailek izan behar.
7. Ez dira onartuko diru-sarrera publikoekin zerikusia duten proposamenak.
8. Udalak, proposamenak aurkezteko epea hasi aurretik, eztabaidatu eta bozkatu behar diren neurrien zerrenda argitaratuko du. Parte-hartzaileek egin nahi dituzten proposamenek, nolana ere, zerrenda horretako proposamenen aldaerak edo antzekoak izan beharko dute, pandemiaren ondorioei aurre egitea eta Galdakao krisi honek agerian utzi dituen beharretara egokitzeko prestatzea helburu dutenak.

### **Proposamen berriak aurkezteko moduak**

#### Formularioa

Baliabide telematikoak erabili ezean, proposamenak udalaren webgunetik deskargatu ahal izango den formularioaren bidez (<https://www.galdakao.eus/>) eta

Galdakako Udalaren egoitza elektronikoaren bidez (<https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/>) aurkeztu beharko dira.

Formularioak eskuragarri egongo dira, halaber, Torrezabal kultur etxean, Urreta kiroldegian, Aperribai liburutegian, Bengoetxeko auzokideen elkartean eta Txapelenan.

Formularioko nahitaezko eremu guztiak beteta ez dituzten proposamenak ez dira izapidetuko.

Bitarteko telematikoak erabiltzen badira (webgunearen bidez), ez da formularioa aurkeztu beharko, nahitaezko eremuak bete besterik ez da egin beharko.

### Proposamena aurkezteko modua

Proposamena aurrez aurre aurkeztu ahal izango da, formularioa lehen adierazitako lekuetan dauden kutxetan utzita.

Telematikoki aurkeztu ahal izango da, udalaren webgunearen bidez: <https://www.galdakao.eus>.

Inprimakia aurreikusitako partaidetza-saio edo foroetan ere entregatu ahal izango da.

### Proposamenak bozkatzea

#### Parte-hartzaileak

Galdakaon erroldatuta dagoen eta 16 urte baino gehiago dituen edonork bozkatu ahalko du. Behin bakarrik eman ahal izango du botoa, eta, gehienez, bost proposamen aukeratu ahal izango ditu.

Baldintzak betetzen ez dituzten pertsonak egin dituzten proposamenak eta eman dituzten botoak ez dute balioko. Horretarako, beharrezkoak diren egiaztapenak egingo dira udal-erroldan.

Boto bakarrean bost proiektu baino gehiago aukeratu badira, baliogabetu egingo da.

#### Bozkatzeko modua

Botoa telematikoki eman ahalko da, udalaren webgunearen bidez (<https://www.galdakao.eus/>), edo aurrez aurre, honako leku hauetan dauden kutxetan botoa utzita: Torrezabal kultur etxean, Urreta kiroldegian, Aperribai liburutegian, Bengoetxeko auzokideen elkartean eta Txapelenan.

### Egutegia

Sortu daitezkeen arazoak direla eta prozedura honetan adierazitako egunak edo lekuak aldatu behar badira, aldaketaren berri emango da webgunean, kasuaren egoerara egokitutako aurrerapenarekin.

Era berean, partaidetza-prozesuko jarduketa guztiak gauzatzean, unean-unean indarrean dagoen osasun-araudia beteko da, eta esku hartzen duten pertsona guztien segurtasuna eta osasuna zainduko da, horretarako beharrezkoak diren egokitzapen guztiak eginda.

### **Publizitatea**

Prozesuko arauen arabera argitaratu behar diren jarduketa, deialdi, dokumentu eta antzeko guztiak, gutxienez, Udalaren webgunean argitaratuko dira. Eta horrek ez dio kalterik egingo prozesu osoari edo prozesuko jarduketei eman dakiekeen hedapen osagarriari.

### **Proposamenen jarraipena**

Aurrekontuak onartu ondoren, sei hilean behin, gardentasun-atarian argitaratuko diren proposamenen jarraipena egingo da.

### **PARTE HARTZEKO PROZEDURA. PROZEDURAREN FASEAK**

Prozedurak lau fase ditu: informazioa emateko eta proposamenak aurkezteko fasea, balorazio-fasea, proposamenak bozkatzeko fasea eta ebaluazio-fasea.

#### **1.- INFORMAZIOA EMATEKO ETA PROPOSAMENAK AURKEZTEKO FASEA (irailaren 28tik urriaren 5era)**

Proposamenak aurkezteko epea hasi aurretik, eztabaidatu eta bozkatu behar diren neurrien zerrenda argitaratuko da. Parte-hartzaileek egin nahi dituzten proposamenek, nolana ere, zerrenda horretako proposamenen aldaerak edo antzekoak izan beharko dute, pandemiaren ondorioei aurre egitea eta Galdakao krisi honek agerian utzi dituen beharretara egokitzeko prestatzea helburu dutenak.

Galdakaon erroldatuta dauden eta 16 urte baino gehiago dituzten pertsona fisikoek euren ekarpenak egin ahal izango dituzte, bai telematikoki (udalaren webgunearen bidez) bai aurrez aurre. Horretarako, proposamenak aurkezteko formularioa bete, eta honako leku hauetan dauden kutxetan utzi beharko dute: Torrezabal kultur etxean, Urreta kiroldegian, Aperribai liburutegian, Bengoetxeko auzokideen elkartean eta Txapelengan.

Aurkezpen telematikoa edozein ordutan egin ahalko da; aurrez aurrekoa, aldiz, leku horiek irekita daudenean.

Aldi horretan, parte hartzeko saioak edo foroak antolatuko dira, eta eskura eman ahalko da formularioa.

Egun eta ordu hauetan egingo dira saioak:

<u>EGUNA</u>	<u>ORDUA</u>
Irailak 28	19:00
Irailak 29	19:00
Irailak 30	19:00

### Proposamenak aurkezteko epea

Proposamenak irailaren 28tik urriaren 5era aurkeztu ahalko dira (biak barne).

Halaber, aurrez aurre aurkeztu ahalko dira, lehen adierazitako egunetan eta orduetan egingo diren saioetan edo foroetan.

### Eraitza

Partaidetza-jarduketak amaitu ondoren, zerrenda bat egingo da, eta Udalaren webgunean eta egoitza elektronikoan argitaratuko dira.

Horretarako, tresna informatiko baten bidez bateratuko dira aurkeztutako proposamenak.

Ez dira argitaratuko eduki iraingarria edo diskriminatzailea duten proposamenak, ezta baldintzak betetzen ez dituzten pertsonen aurkeztutakoak ere (Galdakaon erroldatuta egotea eta 16 urte baino gehiago izatea). Betekizun hori betetzen den egiaztatzeko, udal-errolda egiaztatuko da. Halaber, ez dira argitaratuko, ezta ere, eztabaidatzeko eta bozkatzeko proposamenen zerrendan daudenen aldaerak edo antzekoak ez direnak.

## **2.- PROPOSAMENAK BALORATZEKO FASEA (urriaren 8tik 16ra)**

### Proposamenak aztertzea eta txostena egitea

Fase honetan, udaleko zerbitzu teknikoek, proposamenaren gaiaren arabera, zeintzuk onartuko dituzten eta zeintzuk ez erabakiko dute. Proposamenen bat onartzen ez badute, zergatia azaldu beharko dute. Horretarako, teknikoki ezinezkoak diren

proposamenez gain, kontuan hartuko dira informazio orokorrean aurreikusitako baldintzak.

Era berean, teknikoki eta juridikoki onartzen diren proposamenak kontu-hartzailetzara bidaliko dira, azterketa ekonomikoa egin dezaten. Proposamenek ezingo dute eraginik izan defizitarekin, zor publikoarekin eta aurreikusitako gastu-arauarekin zerkusia duten helburuetan, ezta hornitzaileei ordaintzeko moduan ere, berankortasun-legerian aurreikusitakoaren arabera.

Proposamenak baloratzeko epea: urriaren 8tik 16ra.

#### Onartu diren proposamenak argitaratzea

Proposamen guztiak aztertu ondoren, bi zerrenda argitaratuko dira udalaren webgunean; batek onartutako proposamenak bilduko ditu, eta, besteak, baztertutako proposamenenak eta zergatia.

### **3.- BOZKETA-FASEA (urriaren 19tik 26ra)**

#### Bozkatuko diren proposamenak jendaurrean aurkeztea. Informazio-saioa

Bozketa-fasera pasatzeko onartu diren proposamenak Torrezabal kultur etxean aurkeztuko dira.

Aurkezpenaren eguna: urriak 19.

#### Bozketa

Galdakaon erroldatuta dauden eta 16 urte baino gehiago dituzten pertsonak bozkatu ahalko dute. Behin bakarrik eman ahalko da botoa, eta, gehienez, bost proposamen aukeratu.

Udaleko zerbitzu teknikoek 16 urte baino gutxiago dituzten pertsonen botoak baztertuko dituzte, baita herrian erroldatuta ez dauden pertsonenak ere (erroldan egiaztatuko dute). Halaber, pertsona batek boto bat baino gehiago eman duela aurkituz gero, lehenengo botoa bakarrik hartuko da kontuan. Hori egin ezin bada, lehenengo aurkeztu zirenen artean, ausaz aukeratuko da bat.

Botoa udalaren webgunearen bidez edo aurrez aurre eman ahalko da, honako leku hauetan dauden kutxetan utzita: Torrezabal kultur etxean, Urreta kirolegian, Aperribai liburutegian, Bengoetxeko auzokoen elkartean eta Txapelengan.

Bozkatzeko epea: urriaren 20tik 26ra

#### Botoak zenbatzea eta jakitera ematea

Bai telematikoki bai aurrez aurre eman diren botoen emaitzak bilduko dituen zerrenda bat argitaratuko da webgunean.

Argitaratze-eguna: urriak 29

### Emaitza

Aurrekontuetan sartuko diren proposamenak lehentasun-hurrenkeraren arabera bozkatuenak izango dira, partaidetza-prozesurako gordetako 1.000.000 euroak agortu arte, baina aurrekontu hori ez da inolaz ere gaindituko. Aurrekontuan sartzekoa den azken proposamenak 1.000.000 euroko zenbatekoa gainditzea ekarriko balu, alde batera utzi, eta zerrendan bilatuko litzateke, botoen ordenaren arabera, gehieneko muga hori betetzen duen proposamen bat aurkitu arte.

Aurrekontuan sartuko diren proposamenak udalaren webgunean argitaratuko dira, eta udaletxean eta tokiko komunikabideen bidez aurkeztuko dira.

## **4.- EBALUAZIO-FASEA**

Bozketa-fasea amaitu eta emaitza argitaratu ondoren, memoria bat egingo da partaidetza-prozesuaren emaitzarekin.

Gainera, aurrekontu-ekitaldia amaitu ondoren (2021eko abenduaren 31), gobernu-taldeak bilera egin eta azken emaitza ebaluatu ahal izango du.



## **ANEXO**

### **PROCEDIMIENTO DE PARTICIPACIÓN EN PRESUPUESTOS: PARTICIPACIÓN CIUDADANA EN IDENTIFICACIÓN DE COMPROMISOS DE GASTO PÚBLICO EN LOS PRESUPUESTOS MUNICIPALES**

#### **INFORMACIÓN GENERAL**

Los Presupuestos Generales son la expresión formal documental, en términos financieros y contables, del conjunto integrado de decisiones que constituyen el programa directivo de la actividad económica a realizar por las Entidades locales en cada ejercicio económico y presupuestario.

El Presupuesto Participativo de Galdakao es un proceso abierto por el que las vecinas y los vecinos de Galdakao y Usansolo pueden realizar sus propuestas sobre cómo emplear una parte del presupuesto municipal.

Con carácter general, los presupuestos participativos son una herramienta de democracia participativa, directa y deliberativa, a través de la cual la ciudadanía ejerce su derecho a participar en el diseño, decisión, ejecución y seguimiento de las políticas municipales.

Los fines últimos que se persiguen en este proceso son:

- La participación directa de las vecinas y los vecinos de Galdakao y Usansolo, dándoles un protagonismo activo y profundizado, de esta forma, en la democracia participativa directa.
- Dar respuesta a las necesidades y demandas de la ciudadanía mediante la puesta en marcha de soluciones factibles y consensuadas.
- Mayor transparencia y eficiencia en la gestión municipal.
- Fomentar la reflexión activa y la solidaridad, promoviendo la comunicación y el diálogo entre la administración y la ciudadanía.
- Profundizar en la eliminación de la desigualdad entre hombres y mujeres integrando en el proceso la perspectiva de género.
- Facilitar que los diferentes barrios de Galdakao, puedan tener voz, y puedan expresar sus necesidades. De esta forma, fomentar el sentimiento de pueblo.

- Incorporar la visión del pueblo de las personas menores de 16 años mediante la mediación de las asociaciones que trabajan con infancia y adolescencia, centros educativos, AMPAS, servicios municipales y otros espacios en los que su presencia es importante.
- Construir espacios de deliberación inclusivos a la hora de incorporar proyectos para el desarrollo de nuestro pueblo.

El Ayuntamiento de Galdakao reserva una cantidad de 1.000.000 de euros del presupuesto municipal en concepto de Presupuestos Participativos, destinados a las propuestas que se reciban en este proceso abierto con carácter previo a la elaboración del Proyecto de Presupuesto Municipal. Este proceso participativo tiene naturaleza decisoria, sin perjuicio de las facultades otorgadas al pleno por la normativa básica de régimen local.

A lo largo del proceso intervendrá un grupo motor formado por vecinos y vecinas y representantes del mundo asociativo a fin de dinamizar las diferentes fases. Para ello, el grupo motor participará en la definición de la dinámica de los actos participativos que se realicen, participará activamente en los mismos y los promoverá entre la ciudadanía, participará en el seguimiento y programación cotidiana de la marcha del proceso e, igualmente, tomará parte en cualquier otro aspecto adecuado para la buena marcha del proceso.

Todos los puntos contenidos en este documento tienen por objeto detallar este proceso para la elaboración del presupuesto del año 2021.

### **Naturaleza de las propuestas objeto de debate y votación**

Habida cuenta de las excepcionales circunstancias producidas por la pandemia del COVID-19, sus graves efectos y la prolongación en el tiempo de éstos, el Ayuntamiento ha recopilado las propuestas técnicamente viables que quedaron sin materializar en el proceso participativo del pasado año que son consideradas idóneas para paliar y/o prevenir los estragos de la pandemia. Así, el debate y votación del proceso participativo tendrá por objeto esta serie de medidas, así como aquellas variantes o propuestas análogas que los y las participantes propongan encaminadas a hacer frente a las consecuencias de la pandemia y a preparar a Galdakao para adaptarse a las necesidades que esta crisis ha puesto de manifiesto.

## **Participantes**

Cualquier persona empadronada en Galdakao mayor de 16 años podrá presentar su propuesta y votar una única vez hasta un máximo de cinco propuestas admitidas a votación.

Si se apreciara que una persona ha presentado más de una propuesta, únicamente se tendrá en cuenta la que se hubiera realizado en primer lugar en el tiempo. Si ello no fuera posible, se elegirá al azar una de las presentadas en la primera fecha que conste.

En caso de que se detecte que una persona ha votado más de una vez, solo se tendrá en cuenta la primera votación contabilizada.

No serán válidas las propuestas o votaciones realizadas por personas que no cumplan los requisitos. Para ello se realizarán las comprobaciones necesarias en el padrón municipal.

## **Requisitos de las nuevas propuestas de gasto para ser admitidas a estudio y posterior votación**

9. La propuesta debe ser competencia del Ayuntamiento.
10. La propuesta debe ser técnica y económicamente viable.
11. La propuesta no deberá superar los 200.000 euros de presupuesto.
12. La propuesta debe ser concreta y cuantificable (no se admitirán excesivamente genéricas).
13. Debe ser de interés público municipal y, por lo tanto, no debe ir a satisfacer ningún interés particular ni privado.
14. Debe ser legal y no tener contenido difamatorio o discriminatorio.
15. No se admitirán las propuestas relativas a ingresos públicos.
16. El Ayuntamiento, de manera previa al inicio del plazo de presentación de propuestas, publicará el listado de medidas objeto de debate y votación. Las propuestas que deseen añadir los y las participantes deberán ser, en todo caso, variantes de las contenidas en tal listado o análogas a las mismas, encaminadas a hacer frente a las consecuencias de la pandemia y a preparar a Galdakao para adaptarse a las necesidades que esta crisis ha puesto de manifiesto.

## **Formas de presentar las nuevas propuestas**

### **Formulario**

Las propuestas, salvo en caso de usar medios telemáticos, se deberán presentar a través del formulario que se podrá descargar de la web municipal <https://www.galdakao.eus/> y la sede electrónica del Ayuntamiento de Galdakao <https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/>.

También estarán disponibles los formularios en la Casa de Cultura de Torrezabal, en el Polideportivo de Urreta, en la Biblioteca de Aperribai, en la Asociación de vecinos y vecinas de Bengoetxe y en Txapelena.

No se tramitarán las propuestas presentadas en formularios en los que no estén rellenados la totalidad de campos obligatorios.

En el caso de que se usen medios telemáticos (a través de la web), no será necesario presentar el formulario, sino que se rellenarán los campos obligatorios.

### **Forma de presentar la propuesta**

Se podrá presentar la propuesta presencialmente, depositando el formulario en las urnas situadas en los lugares anteriormente señalados durante su horario de apertura.

Se podrá presentar telemáticamente a través de la web municipal <https://www.galdakao.eus>

También se podrá entregar el formulario en las sesiones o foros participativos previstos.

## **Votación de las propuestas**

### **Participantes**

Cualquier persona empadronada en Galdakao mayor de 16 años podrá votar una única vez, pero podrá seleccionar hasta un máximo de cinco propuestas.

No serán válidas las propuestas o votaciones realizadas por personas que no cumplan los requisitos. Para ello se realizarán las comprobaciones necesarias en el Padrón municipal.

También se anularán las votaciones en las que se hayan seleccionado más de cinco proyectos.

### **Forma de votación**

Se podrá votar telemáticamente, a través de la web municipal <https://www.galdakao.eus/> o presencialmente durante su horario de apertura en las urnas situadas en la Casa de Cultura de Torrezabal, en el Polideportivo de Urreta, en la Biblioteca de Aperribai, en la Asociación de vecinos y vecinas de Bengoetxe y en Txapelena.

### **Calendario**

En caso de que por causas sobrevenidas se tuvieran que modificar las fechas o lugares señalados en este procedimiento, se dará cuenta del cambio en la página web con la antelación adecuada a las circunstancias del caso.

Asimismo, la ejecución de todas las actuaciones del proceso participativo cumplirá con la normativa sanitaria vigente en cada momento y se velará por la seguridad y salud de todas las personas intervinientes realizando todas las adaptaciones necesarias al efecto.

### **Publicidad**

Todas las actuaciones, convocatorias, documentos y similares que deban ser objeto de publicación de acuerdo con las normas del proceso, lo serán, al menos, en la página web municipal. Ello sin perjuicio de toda la difusión complementaria que pueda darse al proceso en su conjunto o a sus diversas actuaciones.

### **Seguimiento de las propuestas**

Una vez aprobados los presupuestos, se hará un seguimiento semestral de las propuestas que se publicará en el portal de transparencia.

## **PROCEDIMIENTO DE PARTICIPACIÓN. FASES DEL PROCEDIMIENTO**

El procedimiento consta de cuatro fases diferenciadas: fase información y presentación de propuestas, fase de valoración, fase de votación de propuestas y la fase de evaluación.

### **1.- FASE DE INFORMACIÓN Y PRESENTACIÓN DE PROPUESTAS (28 de septiembre a 5 de octubre)**

De manera previa al inicio del plazo de presentación de propuestas, se publicará el listado de medidas objeto de debate y votación. Las propuestas que deseen añadir los y las participantes deberán ser, en todo caso, variantes de las contenidas en tal listado o análogas a las mismas encaminadas a hacer frente a las consecuencias de la pandemia

y a preparar a Galdakao para adaptarse a las necesidades que esta crisis ha puesto de manifiesto.

Las personas físicas mayores de 16 años empadronadas en Galdakao podrán realizar sus aportaciones a través de medios telemáticos (web municipal) o presencialmente, rellenando el formulario de presentación de propuestas y depositándolo en las urnas situadas al efecto en la Casa de Cultura de Torrezabal, en el Polideportivo de Urreta, en la Biblioteca de Aperribai, en la Asociación de vecinos y vecinas de Bengoetxe y en Txapelena.

La presentación telemática se podrá realizar en horario ininterrumpido y la presencial, en los horarios de apertura al público de las diferentes ubicaciones.

Durante este periodo se celebrarán sesiones o foros participativos en las que se podrá entregar en mano el formulario.

Las fechas y horas de estas sesiones serán los siguientes:

<u>FECHA</u>	<u>HORA</u>
28 de septiembre	19:00
29 de septiembre	19:00
30 de septiembre	19:00

#### Plazo presentación de propuestas

Se podrán presentar propuestas entre el 28 de septiembre y el 5 de octubre, ambos inclusive.

También se podrán entregar en mano las propuestas en las sesiones o foros que se celebrarán, en las horas y fechas arriba indicadas.

#### Resultado

Una vez finalizadas las actuaciones participativas, se elaborará un listado y se publicarán en la web municipal y en la sede electrónica.

Para ello las propuestas realizadas y presentadas mediante las diferentes formas de presentación se unificarán a través de la herramienta informática oportuna.

No se publicarán las que tengan contenido difamatorio o discriminatorio o las que hayan presentado personas que no cumplen los requisitos (mayores de 16 años

empadronados en Galdakao). Este último requisito se comprobará mediante consulta al padrón municipal. Asimismo, tampoco se publicarán las que no sean variantes o análogas a las contenidas en el listado de medidas objeto de debate y votación previamente publicado.

## **2.- FASE DE VALORACIÓN DE PROPUESTAS (8 de octubre a 16 de octubre)**

### Estudio e informe de las propuestas

En este apartado, los servicios técnicos municipales, en función de la materia sobre la que versa la propuesta, se pronunciarán sobre la admisión a votación o no y el motivo de exclusión. Para ello, además de una posible imposibilidad netamente técnica, se tendrán en cuenta los requisitos previstos en la información general.

De la misma manera, las propuestas admitidas técnica y jurídicamente se trasladarán a Intervención para el análisis económico. Ninguna propuesta podrá afectar a los objetivos de déficit, deuda pública y regla de gasto previsto, ni al periodo medio de pago a proveedores previsto en la legislación de morosidad.

Plazo para la valoración de propuestas: del 8 de octubre a 16 de octubre

### Publicación de las propuestas admitidas

Una vez analizadas todas las propuestas se publicará un listado en la web municipal con las propuestas admitidas y un listado con las propuestas excluidas y el motivo.

## **3.- FASE DE VOTACIÓN (19 a 26 de octubre)**

### Presentación pública de las propuestas que se someterán a votación. Sesión informativa

Se presentarán en la Casa de Cultura de Torrezabal las propuestas que han sido finalmente aprobadas para pasar a la fase de votación.

Fecha de presentación: el 19 de octubre.

### Votación

Podrán votar todas las personas empadronadas en el municipio de Galdakao mayores de 16 años. Se podrá votar una única vez, si bien se podrán seleccionar hasta un máximo de cinco propuestas.

Los servicios técnicos municipales, excluirán las votaciones realizadas por menores de 16 años o los votos emitidos por personas no empadronadas que detecten tras las comprobaciones en el padrón. De igual manera, si se detecta que una persona vota más de una vez, solo se tendrá en cuenta el voto que primero hubiera sido emitido

en el tiempo. Si ello no fuera posible, se elegirá al azar una de las presentadas en la primera fecha que conste.

Se podrá votar a través de la web municipal o presencialmente depositando su votación en las urnas situadas en la Casa de Cultura de Torrezabal, en el Polideportivo de Urreta, en la Biblioteca de Aperribai, en la Asociación de vecinos y vecinas de Bengoetxe y en Txapelena, durante el horario de apertura.

Plazo de votación: del 20 al 26 de octubre

#### Recuento y publicación

Se publicará en la web municipal un único listado con el resultado de las votaciones, tanto telemáticas como presenciales.

Fecha publicación: el 29 de octubre

#### Resultado

Las propuestas a incorporar a los presupuestos serán aquellas propuestas más votadas por orden de prelación hasta completar (agotar) el 1.000.000€ reservado a la participación, sin que en ningún caso sobrepase este presupuesto. En caso de que la última propuesta a incluir en el presupuesto supusiera rebasar el total de 1.000.000 euros, se omitiría y se buscaría en el listado, por orden de votos descendente, hasta hallar una propuesta que cupiera en dicho límite máximo.

Las propuestas a incorporar se publicarán en la web municipal, se presentarán en el Ayuntamiento y a través de medios de comunicación locales.

#### **FASE 4.- FASE DE EVALUACIÓN**

Una vez finalizada la fase de votación y se haya publicado el resultado, se realizará una memoria con el resultado del proceso participativo.

Además, finalizado el ejercicio presupuestario (31 de diciembre de 2021), el equipo de gobierno se podrá reunir y evaluar el resultado final.